

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



POLICARPO ELOSEGI. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.

BOINAS ELOSEGIKO LANGILEAK, 1891N

Euskaldunak janzkeran nabarmendu dituen zerbait badago, txapela izan da zalantzarik gabe. Urteetan zehar iraun duen ikur kultural eta soziala izan da. Euskal Herrian, bi lantegi garrantzitsu izan ditugu txapelak ekoizten. Lantegi horietako lehena Antonio Elosegi sortu zuen 1858an, Tolosan. Gaur egun, munduko txapel fabrikarik garrantzitsuenetakotzat jotzen da, bere produktuak herrialde askotara esportatu baitira. Bigarren fabrika Balmasedan zegoen eta 1892an sortu zuen Marcos Arenak. Gaur egun txapelik ekoizten ez duen arren, fabrika hau historia eta ondarea babesten dituen museo bihurtu da. Elozegi txapel-fabrika Tolosako erdigunean egon zen lehen urteetan, eta bertan emakumeek bakarrik egiten zuten lana. Langile bakoitzak txapel bat egiten zuen egunean. Denborarekin, makinak automatizatzeko sistema bat ipini zuten martxan, Europatik ekarria. Berrikuntza horri esker, 1914rako, txapelen ekoizpena nabarmen handitu zen, eta egunean 3.500 txapel inguru egiten ziren. Artikulua ilustratzen duen argazkia 1891koa da, eta Elozegi txapel-fabrikako langile talde bat erakusten du, Policarpo Elosegi argazkilariarentzat posatzen. Policarpo Boinas Elozegiko sortzailearen iloba zen, eta enpresako zuzendaritzako kidea.